

NOLA ERABILI

2. GELTOKIA

Bideoa ikusi aurretik, gida didaktiko honetako orrialdeen kopiak egin eta ikasleei banatzea proposatzen dizuegu. Horrela, ikasleek bideoan ikusiko dutenaren berri izango dute eta errazago ulertuko dute bideoan esaten dena. Bideo-gelako saioak ikasitakoaren berrikustea izan behar du. Ikasgelan egindako lana finkatzeko saioa, alegia.

Bideoan bi atal nagusi bereizi ditugu. Batetik, determinatzaile mugatzaileen atala; eta, bestetik, determinatzaile zenbatzaileena.

DETERMINATZAILEAK

03:21

DETERMINATZAILE MUGATZAILEAK

04:08

-ARTIKULUA, ERAKUSLEAK-

PROPOSAMENA

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz; eta, bukaeran, koadrotxoan proposatzen diren ariketak klasean egin.

AITONAREN JARAUNSPENA

06:50

Atal dramatiko luzea lantzeko zera proposatzen dizugu:

-Lau ikasleko taldetxoak egin.

-Gidoia irakurri, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

-Istoria moldatu eta antzeztu.

Gelako hiru gauza aukeratu —leiho bat, irakaslea, aulki bat, ikasle bat, koadro bat, atea ... — eta hiru gelakideri eman, gauza bakoitza deskribatu eta ematearen zergatiak denen aurrean azaldu ondoren.

DETERMINATZAILE ZENBATZAILEAK

10:37

-ZEHAZTUAK, ZEHAZTUGABEAK, OROKORRAK-

PROPOSAMENA

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz; eta, bukaeran, koadrotxoan proposatzen diren ariketak klasean egin.

Hori guztia eginda, bideoa ikusi.

OINARRIAK EUSKARAZ ABIATZEKO

2. GELTOKIA

DETERMINATZAILEAK

Izen arruntek, izen bereziak eta izenordainek ez bezala, determinatzaile-
ren bat behar dute izen-sintagma osatzeko. Nik *Mikel* edo *Bilbo* esaten badut zuek
badakizue zertaz ari naizen eta zenbat diren; baina, *mutil* edo *hiri* bezalako izenak
ezin dira determinatzailerik gabe erabili.

Mikel etorri da
Mutila etorri da

Bilbo handia da.
Hiri hori handia da

Determinatzaile batzuek mugatu egiten dute izena; mugatzaile deitzen
zaie eta artikulua eta erakusleak dira.

ARTIKULUA ERAKUSLEAK

DETERMINATZAILE MUGATZAILEAK -ARTIKULUA-

Artikulua zehaztua edo zehaztugabea izan daiteke.

ARTIKULUA

ZEHAZTUA		ZEHAZTUGABEA	
<i>Singularra</i>	<i>Plurala</i>	<i>Singularra</i>	<i>Plurala</i>
Mutila	Mutilak	Mutil bat	Mutil batzuk

Artikulu zehaztuak bi forma dauzka: bata singularrerako, -a, eta
beste bat pluralerako, -ak. Artikulu zehaztugabeak ere bi forma hartzen
ditu: bat singularrean eta *batzuk* pluralean.

Bat eta *batzuk* izatez, ez dira mugatzaileak, zenbatzaileak baizik; baina, gaurko
euskaran, mugatzailearen lekuan kokatu ohi dira, askotan.

DETERMINATZAILE MUGATZAILEAK -ERAKUSLEAK-

ERAKUSLEAK

Singularra

Plurala

Mutil **hau**

Mutil **hauek**

Erakusleak zerbait seinalatu, erakutsi egiten du.

Erakusleak hiru dira: *Hau, hori, hura*.

Eta, *hau, hori, hura* erakusleen pluralak *hauek, horiek, haiek*.

Singularra: HAU-HORI-HURA

Plurala: HAUEK-HORIEK-HAIEK

Gogoratu. Erakusleen esanahia distantzia kontua da.

Hau bai, **hau**, neska jatorra.

Neska **hau** munduko neskarik jatorrena da.

Neska **hori** Gasteizkoa da.

Ziur nago, neska **hori** Gasteizkoa da.

Hura, neska **hura** injinerua da, bai.

Neska **hura** oso da jakintsua.

Ikusi al duzue? Esan dizuet, distantzia kontua. Beste kasuetan ere berdin egiten da. Ikus dezagun.

Auto gorria neska **honena** da.

Auto gorria neska **horrena** da.

Auto gorria neska **harena** da.

Auto gorria neska **hauena** da

Auto gorria neska **horiena** da

Auto gorria neska **haiena** da

AITONAREN JARAUNSPENA

Diapositiba aretoko plano orokorra. Aitonak ilobei zer utziko dien azaltzen ari da.

- AITONA** Etxe **hori** Tolosan dago, Garrazki auzoan. Oso handia da.
Igerileku eta lorategi ederrak dauzka. Etxe **hori**, zuretzat, Nerea.
- AITONA** Etxe **hori** Aizarnan dago. Ez da oso handia. Ez dauka igerilekurik.
Etxe **hori**, zuretzat, Mikel.
- MIKEL** Ongi da, aitona; baina, zein da etxea?
- AITONA** Bada, **hori**, Mikel, **hori**... Ez al duzu ikusten?
- MIKEL** Ikusi, ikusi bai, beno ez. Nik hor **hiru** etxe ikusten ditut. **Hiru**.
- AITONA** Ai, Mikel, Mikel. Entzun, entzun arretaz,
hau ez da nire etxea. Etxe **hau** ere ez da nirea. Etxe **hau** da nirea;
beraz, etxe **hau** da zuretzat. Ez **hau**, ez **hura**, **hori** da zure etxea.
Erdikoa. Ados?
- MIKEL** Bai, bai ados nago.
- AITONA** **Hori** Pagaldaiko borda da. Txikia eta polita. Borda **hori**, zuretzat,
Oihane.
- NEREA** Ados, aitona. Zuk nahi duzun bezala.
- AITONA** Beraz, Aizarnako etxea, zuretzat, Nerea; Tolosakoa, zuretzat,
Oihane eta Pagaldaiko borda, zuretzat, Mikel.
- OIHANE** Ez, aitona, Tolosako etxea, niretzat; Aizarnakoa, Mikelentzat,
eta Pagaldaiko borda, Oihanerentzat.
- AITONA** Ez, Pagaldaiko borda, Mikelentzat ... Berrito azalduko dut.
- AITONA** Etxe **hori** Tolosan dago, Garrazki auzoan. Oso handia *da*. Igerileku
eta lorategi ederrak dauzka. Etxe **hori**, zuretzat, Oihane.

BERRIKUSTE AZKARRA

AGUR Nor da neska **hura**? Neska **hura** Oihane da.

AGUR Non bizi da Oihane? Oihane Araian bizi da.

AGUR Nongoa da Oihane? Oihane Araiakoa da; araiarra.

AGUR Non dago etxe **hori**? Etxe **hori** Tolosan dago.

AGUR Non daude etxe horiek? Etxe horiek Aizaman daude.

AGUR Non dago borda **hori**? Borda **hori** Pagaldain dago.

DETERMINATZAILE ZENBATZAILEAK

Beste determinatzaile batzuk, zenbatzaileek, kopurua edo kantitatea adierazteko erabiltzen dira. Hiru zenbatzaile mota bereiz daitezke: zehaztuak, zehaztugabeak eta orokorrak.

ZEHAZTUAK

ZEHAZTUGABEAK

OROKORRAK

Zenbatzaile zehaztuek kopuru edo kantitate zehatza adierazten dute.

DETERMINATZAILE ZENBATZAILE ZEHAZTUAK

Kardinalak: *Bat, bi, hiru, lau, hogeita bost, ehun, ...*

Mutil bat Bi mutil / Mutil bi 3 mutil 4 mutil

Zenbatzaile zehaztu kardinalak, gure artean zenbaki deitzen ditugu.

Ordinalak: *zenbakia + -garren*

Bigarren mutila , 3. mutila, 4.a. Lehenengo mutila

Zenbatzaile ordinalak, zenbakiari -garren atzizkia erantsiz osatzen dira. Ordinaletan lehenengoa da salbuespena.

Zatikiak: *zenbakia + -(r)en*

1/2 erdi 1/3 heren 1/4 laurden 1/5 bosten 2/3 bi heren

Zatikiak adierazteko NOREN kasuaren marka erantsi ohi zaio zenbakiari.

Ehunekoak: *ehun -(e)ko + zenbakia*

% 5 ehuneko bost % 25 ehuneko hogeita bost

Ehunekoak-ko atzizkiaren bidez adierazten dira.

Banatzailleak: zenbakia + -na

Jonek eta Nereak bost kromo erosi dute.

Jonek eta Nereak bosna kromo erosi dute.

Banatzailleak zenbatzaile zehaztuei *-na* atzizkia erantsiz lortzen dira. Jonek eta Nereak bost kromo erosi dute. Bost kromo bientzat.

Jonek eta Nereak bosna kromo erosi dute. Bost Jonek eta bost Nereak.

DETERMINATZAILE ZENBATZAILE ZEHAZTUGABEAK

Zenbatzaile zehaztugabeek ere *zenbat?* galderari erantzuten diote, baina kopurua edo kantitatea zehaztu gabe; eta, bakarrik edo izen batekin, ager daitezke.

ZENBAT

Zenbat izen-sintagmaren aurrean kokatzen da, mugagabean deklinatzen da, aditzarekiko komunztadura singularrean nahiz pluralean egin dezake eta galderak egiteko erabiltzen da.

Zenbat aldiz errepikatu behar dut lelo bera?

Zenbat disko grabatu ditu Mikel Urdangarinek?

Zenbatentzat erosi duzu menestra?

BATZUK/ZENBAIT

Batzuk eta *Zenbait* esanahiaren aldetik antzekoak dira. Izen-sintagmaren barruan hartzen dute lekua, *batzuk* izenaren atzean jartzen da; aldiz, *zenbait*, normalean, izenaren aurrean.

Mutil **batzuk** oso lotsatiak dira.

Zenbait tokitan hiru musu emateko ohitura daukate.

ASKO

**ANITZ/FRANKO/HAGITZ/HAINBAT/UGARI
PILO BAT/MORDO BAT/MAKINA BAT**

Asko, anitz, franko, hagitz, hainbat, ugari, pilo bat, mordo bat eta makina bat zenbatzaileek ugaritasuna adierazten dute. Zenbatzaile horiekin aditza singularrean nahiz pluralean joan ohi da eta normalean mugagabea deklinatzen dira.

Horietako batzuk izenaren aurrean joan ohi dira.

HAGITZ/HAINBAT/MAKINA BAT (aurrean)

Hagitz dei egin ditut dagoeneko.

Hainbat jende joan da zinera.

Makina bat aldiz joan naiz berarengana, baina ez du nirekin hitz egin nahi.

Beste batzuk izenaren atzean joan ohi dira.

UGARI/ASKO/PILO BAT/MORDO BAT (atzean)

Jende **ugari** etorri da hitzaldira.

Zuhaitz **asko** bota ditu haizeak.

Diru **pilo bat** egin du Ameriketan.

Lagun **mordo bat** elkartu gara afarian.

Franko eta *anitz* aurrean zein atzean joan daitezke. *Franko* maizago agertzen da atzean; *anitz*, ordea, maizago agertzen da aurrean.

Zalantza **franko** izan du ezkontzeko.

Anitz tokitan ikusi dut Mikel berbetan.

GUTXI

APUR BAT/PIXKA BAT/PITIN BAT/PARE BAT

Gutxi, apur bat, pixka bat, pitin bat eta pare bat zenbatzaileek urritasuna adierazten dute.

Eurekin aditza singularrean nahiz pluralean joan daiteke, normalean mugagabeen deklinatzen dira eta izenaren aurrean joan ohi dira.

Itxaron pixka bat.

Gatz pitin bat behar du puntua lortzeko.

NAHIKOA/ASKI/DEZENTE

Nahikoa, aski eta dezente zenbatzaile zehaztugabeak balio enfatikoarekin erabili ohi dira.

Nahikoa lan egin dut gaur, banao etxera.

Aski da, aspertuta nago, ez dut disko hori berriro entzun nahi.

DETERMINATZAILEREN ZENBATZAILEREN OROKORRAK

Zenbatzaile orokorrek *zenbat?* galderari erantzuten diotenean, kopurua edo kantitatea adierazi beharrean, osotasuna adierazten dute.

DENA/GUZTIA/ORO/OSO/BETE

Dena, guztia, oro, oso eta bete zenbatzaile orokorrak dira.

DENA (bakarrik)

Dena zenbatzaile bakartia da —**Dena jakin nahi duzu.** Erakusleekin joan behar baldin badu aposizioan joango da —**Hau dena aldatu nahi nuke.**

OIHANE Patata **horiek guztiak** zuritu behar dituzu.

MIKEL **Denon** artean zuritu behar ditugu.

OIHANE **Denok** ezin gara hemen egon.

GUZTIA (atzean) OSO (atzean)

Guztia bakarrik zein izenaren atzean jarri ohi da —**Ikasle guztiak etorri dira,** eta erakusleekin aposizioan erabiltzen da —**Marra horiek guztiak oker daude.** *Oso* zenbatzailea ere izenaren atzean erabiltzen da, baina zatigarri diren gaiekin —**Ogi barra osoa jan du,** eta denbora adierazteko maiz erabiltzen da —**Urte osoa behar izan du.**

Erratz **hauek guztiak** zikin-zikinak daude.

Egun **osoa** eman dute herria arakatzen.

ORO (atzean)

Leku batzuetan, kasu-markak *oro*-ren atzean jartzen dira.

Jendea oro isilik dago

Beste zenbait lekutan izena pluralean eta *oro* mugagabean deklinatzen dira.

Argiak oro itzali dituzte.

Inoiz izenak erakuslea hartzen du.

Antzerki hauek orok oihartzun handia dute.

BETE (atzean)

Bete, izatez aditz-partizipioa da, baina zenbatzaile orokorrekin antz handia duenez, zaku berean sartzea pentsatu dugu. Izenaren atzean jarri ohi da.

Betek kantitatea edo neurria adierazteko gorputz-atal, ontzi edo objekturen batez baliatzen da —**Botila bete ur edan dut goizean.**

Poltsa bete liburu ekarri dizut.

Pitxarra bete esne hartu, eta lasaituko zara.

Denbora adierazteko ere maiz erabili ohi da² *bete* —**Ordubete eman dugu uretan.** Kasu horietan lotuta idazten dira.

Aski da. **Urtebete eman dut liburu artean ikasten.**

Astebeteko oporrak eman eta maiteko zaitut hilabetea.

Testuak irakurri eta azpimarratuta dauden hitzen determinatzaileen ezaugarriak idatziz azaldu barrenean, ereduari jarraikiz.

Azkenaldi honetan, langabeziari buruzko iritziak sarri agertu dira komunikabideetan. Ezin ukatu gaiari buruzko iritzi guztiak entzutea merezi duela; ezinbestekoa da, arazo larria baita gure herrian. Horregatik, gure sailaren hausnarketak ere ekarri nahi ditugu orrialde hauetara, gure sailaren jarrera agertzeko eta langabeziari aurre egiteko hainbat neurri proposatzeko.

Lan-talde prok, jarduna hasi aurretik, argi izan behar du zein diren lortu nahi dituen helburuak, eta zein baliabide dituen lana egiteko. Lehendik egindako lanak kontuan hartzea eta haietako zenbait lanez baliatzea komeni da. Zalantza franko sortu ohi dira; hori saihestezina da Gizakiak gara.

Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi:
Euskal Gramatika Osoa,
Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI,
Josemari:
Gramatika Gaitasuna Lantzen,
Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA:
Euskaltzaindiaren arauak,
Euskaltzaindia, Bilbo, 1994-2000.

Orri elektronikoa

www.hiru.com